AIAKO XX. ARGAZKI LEHIAKETA

GAIA: Gaia librea izango da, betiere argazkiak Aiako udalerriarekin lotura zuzena badu: natura-ingurunea, ondarea, jarduerak, herriko bizimodua, tradizioak, fauna, flora edo Aiarekin lotura duen eta identifikagarria den beste edozein elementu.
Argazkietan identifika daitezkeen pertsonak agertzen direnean, egilearen ardura izango da irudi horiek erabiltzeko eta jendaurrean erakusteko beharrezko baimenak izatea.

PARTE-HARTZAILEAK: 18 urtetik gorako argazkizale eta argazkilari profesional guztiek parte hartu ahal izango dute. Epaimahaikideek eta haien zuzeneko senideek ezin izango dute parte hartu.

ARGAZKIAK: Parte-hartzaile bakoitzak 2025ean edo 2026an egindako gehienez lau argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazki horiek ezin izango dira aurrez lehiaketa honetan edo beste argazki-lehiaketaren batean aurkeztutakoak izan.
Argazkiek originalak eta egileak berak ateratakoak izan beharko dute. Egileak bermatu beharko du argazkien eskubide guztien titular bakarra dela eta ez dutela hirugarrenen eskubiderik urratzen.
Ez dira onartuko adimen artifizialaren bidez osorik edo zati batean sortutako irudiak, ezta adimen artifizialeko tresnekin eraldatutakoak edo kamerak jasotako irudian ez zeuden elementuak gehituta dituztenak ere.

AURKEZPENA: Argazkiak argazki-paperean aurkeztu beharko dira, 30 × 20 cm-ko formatu horizontalean. Horrekin batera, JPG edo JPEG formatuko fitxategi digitala aurkeztu beharko da, gutxienez 5 Mpx-koa, baita RAW fitxategia ere, halakorik izanez gero. Ez dira onartuko jatorrizko irudia moztuta lortutako argazkiak.

Koloretako nahiz zuri-beltzeko argazkiak onartuko dira, betiere lanketa esposizioaren, kontrastearen eta saturazioaren doikuntza orokorretara mugatzen bada. Ez da onartuko edizio selektiborik, elementuak ordezkatzea edo ezabatzea, kameraren iragazki automatikoak erabiltzea, jatorrizko eszenaren osotasuna aldatzen duen lanketarik, ezta jasotako errealitatea nabarmen aldatzen duen bestelako esku-hartzerik ere.

Papereko kopia bakoitzaren atzealdean argazkiaren izenburua idatzi beharko da. Argazkiak gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira, honako datu hauek jasotzen dituen orri batekin batera: egilearen izen-abizenak, bizilekua, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa eta argazki bakoitzaren izenburua eta data.

AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA: 2026eko urriaren 2ra arte entregatu ahal izango dira Aiako Kultur Etxean.

SARIAK: Bi kategoria bereiziko dira: deialdi hau argitaratzen den unean Aian erroldatuta dauden parte-hartzaileena eta herrian erroldatuta ez daudenena. Sariek zenbateko bera izango dute bi kategorietan, eta parte-hartzaile bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du: 1. saria 300 euro, 2. saria 220 euro eta 3. saria 150 euro.

Egile beraren bi argazki hautatzen badira, sailkapen onena duena soilik jasoko du saria. Besteak diru-saririk gabeko aipamen berezia jasoko du, eta zerrendako hurrengo

argazkia sarituko da automatikoki.
Horrez gain, saririk jaso ez duten parte-hartzaileen artean saski bat zozkatuko da.

EPAIMAHAIA: Aurkeztutako argazkien artean aurre-hautaketa bat egingo da, gaiarekin bat ez datozenak edo kalitate nahikoa ez dutenak baztertzeko. Horretarako, irizpide teknikoak hartuko dira kontuan (bereizmen txikia, enkoadraketa arazoak, fokuratzea edo kontraste-arazoak, besteak beste), zein ebaluazio subjetiboko irizpideengatik (originaltasuna, interesgarria izatea, aurreko urteetako argazkien errepikapena edo antzekotasuna…).
Epaimahaikideek eta haien senide edo gertukoek ezingo dute parte hartu lehiaketan.

Ondoren, onartutako lan guztiak Kultur Etxean erakutsiko dira, argazki irabazleak eta 2027ko egutegia osatuko dutenak aukeratzeko.

Argazki irabazleak hautatzeko, herri-bozketan eta epaimahaiaren bozketan lortutako puntuazioak batuko dira. Herri-bozketan boto gehien jasotzen dituzten hamabi argazkiei 12 eta 1 puntu artean emango zaizkie, sailkapenaren arabera. Epaimahaiak hautatutako hamabi argazkiei, berriz, 24 eta 2 puntu artean emango zaizkie, (bi puntuka). Bi bozketetako puntuazioak batu ondoren, emaitzaren arabera zehaztuko dira argazki irabazleak eta 2027ko egutegia osatuko dutenak.

ARGAZKIAK BERRESKURATZEA: Aurkeztutako argazkiak Udalaren esku geratuko dira, eta egutegietan, liburuxketan zein bestelako argitalpenetan erabili ahal izango ditu, betiere egilearen izena aipatuta. Paperean aurkeztutako argazkiak Kultur Etxean jaso ahal izango dira lehiaketa amaitu ondoren.

FORUA ETA EZTABAIDAK: Lehiaketan parte hartzeak oinarri guztiak eta epaimahaiak horien inguruan egin ditzakeen interpretazioak osorik onartzea dakar. Oinarri hauetan aurreikusi ez den edozein egoera epaimahaiak ebatziko du, lehiaketaren izaera eta helburuak kontuan hartuta.

XX. CONCURSO FOTOGRAFICO DE AIA

TEMA: El tema es libre, siempre que la fotografía mantenga una relación directa con el municipio de Aia: su entorno natural, patrimonio, actividades, vida social, tradiciones, fauna, flora o cualquier elemento identificable del pueblo.
Cuando aparezcan personas reconocibles, el autor será responsable de contar con las autorizaciones necesarias para su uso y exhibición pública.

PARTICIPANTES: Podrán participar todas las personas aficionadas o profesionales, mayores de 18 años. No podrán concurrir los miembros del jurado ni sus familiares directos.

FOTOGRAFIAS: Cada participante podrá presentar un máximo de cuatro fotografías realizadas en los años 2025 o 2026, que no hayan sido presentadas previamente en este u otros concursos fotográficos. Las fotografías deberán ser originales y tomadas por el propio autor, quien garantiza ser titular exclusivo de todos los derechos sobre las mismas y que estas no infringen derechos de terceros. Quedan excluidas las imágenes generadas total o parcialmente mediante inteligencia artificial, así como aquellas que hayan sido alteradas mediante herramientas de IA o que incorporen elementos ajenos a la escena captada por la cámara.

PRESENTACIÓN: Las fotografías deberán presentarse en papel fotográfico, en formato horizontal de 30 x 20 cm, y acompañarse de un archivo digital en formato JPG o JPEG con un tamaño mínimo de 5 Mpx, además del archivo RAW en caso de disponer de él.

No se admitirán imágenes recortadas a partir de la imagen original. Se admitirán fotografías en color o en blanco y negro, siempre que el procesado se limite a ajustes generales de exposición, contraste y saturación. No se permitirá ningún tipo de edición selectiva, sustitución o eliminación de elementos, aplicación de filtros automáticos de cámara, procesados que alteren la integridad de la escena original o cualquier intervención que modifique de manera sustancial la realidad captada.

Cada copia en papel deberá llevar el título escrito en el reverso y se entregará dentro de un sobre cerrado que incluirá una hoja con el nombre y apellidos del autor, lugar de residencia, teléfono, correo electrónico, título de cada fotografía y fecha de realización.

PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN: Se entregarán hasta el 2 de octubre de 2026 en la Casa de Cultura de Aia.

PREMIOS: Se dividen en dos grupos, uno de ellos para los empadronados en Aia en el momento de publicarse esta nota y otro para los no empadronados en la localidad. Los premios serán de la misma cuantía en ambos casos y no será posible otorgar más de un premio por participante: 1º premio: 300 euros 2º premio: 220 euros 3º premio: 150 euros. En caso de que resultasen elegidas dos fotografías de un mismo autor, solo se

considerará premiada la mejor clasificada, obteniendo la otra una mención especial sin dotación económica, y premiándose automáticamente la siguiente fotografía. Además, se sorteará una cesta entre los participantes que no hayan sido premiados.

JURADO: Se realizará una criba previa entre las fotografías presentadas a fin de descartar aquellas que no se ajusten al tema o no tengan suficiente calidad, ya sea por criterios técnicos (baja resolución, problemas de encuadre, enfoque, contraste, etc) o por criterios de evaluación subjetiva (originalidad, interés, repetición o similitud con otras fotografías o de años anteriores, etc). Los integrantes del jurado (y sus allegados o familiares directos) no podrán concurrir al concurso como participantes.

Posteriormente, se realizará una exposición con todos los trabajos admitidos en la Casa de Cultura, a fin de elegir a las fotografías ganadoras y las que conformarán el calendario del año 2027.

Para la elección de las fotografías ganadoras se sumarán las puntuaciones de la votación popular y las puntuaciones de la votación del jurado. Para ello se asignarán desde 12 hasta 1 punto a cada una de las doce fotografías más votadas en la votación popular; y se asignará desde 24 hasta 2 puntos (en saltos de 2 puntos) a cada una de las doce fotografías elegidas por el jurado, procediendo posteriormente a sumar las puntuaciones de la votación popular y del jurado, obteniéndose las fotografías ganadoras y seleccionadas para el calendario de la puntuación resultante.

RETIRADA DE LAS FOTOGRAFIAS: Las fotos presentadas quedarán en manos del Ayuntamiento que podrá utilizarlas en calendarios, folletos y otras publicaciones citando al autor de las mismas. Las fotografías en formato físico podrán ser retiradas en la Casa de Cultura una vez finalizado el concurso.

FUERO Y DISPUTAS: La participación en el presente concurso supone la aceptación íntegra de todas las bases y de las decisiones interpretativas que de las mismas efectúe el jurado. Cualquier supuesto no recogido en las presentes bases será resuelto por el propio jurado atendiendo al espíritu del concurso.